

CHROMEBOOK ARAUTEGIA

Chromebookaren Erabilera

SARRERA

Informazio eta komunikazio teknologia berriak ezagutzea ezinbestekoa dute irakasleek zein ikasleek. Teknologia eta informazioaren gizarreak eskaintzen digun inguru berrian nola lan egin ikastea eta informazioa nola erabili eta tratatu ezagutzea da gure helburua.

“Ikaslea gai izan behar da, bere bizitzako eremuetan, egoera bakoitzak eskatzen duen IKT baliabideen erabilera egokia, eraginkorra eta arduratsua egiteko: informazioa kudeatzeko, elkarlanean aritzeko, ekintzaile izateko eta horrekin guztiarekin ezagutza erabiltzeko”

Euskal Curriculumean IKT konpetentzia den moduan, Ikastolan hau ardatz dugun hainbat ekintza eta proiektu martxan jartzen ari gara, I+K teknologiak gure eguneroko zereginetan txertatuak dituen ikastola izan nahi dugulako, kudeaketa, antolaketa zein irakaskuntza prozesuan.


Informazioa bilatu, prozesatu eta komunikatzeko konpetentziak bermatuz ezagutza sortzeko gai diren ikasleak hezi behar ditugu. Horretarako, irakasleek, ikastolen pedagogia-curriculum proiektuekin bat datozen IKT baliabideak erabiliz, metodologia berritzaileak eta kolaborazio proiektuak bultzatu behar dituzte eta horretan laguntzen ahalegintzen gara IKT proiektutik.

Garrantzitsuena, ordea, ez da Teknologiaren erabilera, ezta irakasleak teknologiaz egin dezakeena ere. Inportanteena, ikasleek egin eta eginez ikasi dezaketenean da. Proiektu honetan, teknologiaz, ikasle artean lan kooperatiboa, konkurrentzia/partekatzea, berdinen arteko ikasketa, komunikazioa... eragiten da.

ABIAPUNTUA: BAKOITZAK DAUKAN CHROMEBOOK-A

Ikastolako azpiegitura teknologikoak lankidetzan oinarritutako ikaskuntza-garapena sortzea du xede. Azpiegitura horrekin bideragarritasunean, Deustuko Ikastolak Xenon enpresaren bitartez, Chromebook ordenagailu bana eskuratu die ikasleei. Norbere jabetzan emandako ekipoa **hezkuntza-tresna bat** da eta ikasleak etengabe erabili eta zaindu beharko duen oinarritzko ikasketa **baliabide pertsonala** izango da.

Eredu honek ikasleek baliabideen erabilera hartu beharreko konpromisoan eragiten du eta, etorkizunean, ikasle eta erabiltzaile arduratsu zein autonomoak garatzeko egitasmoa landu nahi du.



Kontsumitzaile izatetik erabileraren jabe izaterako trantsizioa lortu nahi da.

Hala eta guztiz ere, ekipo teknikoa bera eskuratzeak, bere horretan ez du proiektu kurrikularraren garapena ziurtatzen. Eskura jartzen dena hori baino gehiago da, besteak beste, ordenagailua ez ezik sistema eragile eta plataforma atxikipen eskubideak, eta mantenu zein babes planak osatzen dute eraikitako produktu osoa.

CHROMEBOOKa ESKURATZEA

Ordenagailua jasotzea

Ikastolak kudeaketa bateratuan hautatutako ordenagailuak ikasturtearen lehen eskola-egunetan emango zaizkie ikasle berriei.

Gailuaren identifikazioa

Ikasleen ordenagailuak ikastolak zehaztutako moduan etiketatuko dira, eta horien bidez identifikatu ahal izango dira.

Ikastolako etiketa-erregistroa, eta serie-zenbakia: ikastetxeak gailu bakoitza bereizituta izango du (G-suitean gordeta izanik)


Ordainketa eredia

Produktu osoak, lau urterako proiektu kurrikularraren bideragarritasuna zein dagokion mantenu-plana aurreikusi du. Horren baitan Xenon enpresaren bitartez jasotako produktuaren prezioa 350€koa da.

EKOIZPEN ETA EDUKI DIGITALA KUDEATU ETA GORDETZEA

Deustuko ikastolak eskainitako hari gabeko konexio baten bitartez, Interneten sartu ahal izango du ikasleak bere jarduera, dokumentu eta fitxategiak kudeatzeko. Edonon eta edonoiz, ekoizpen guztiak linean biltegitratuko dira ikastolaren kontrolpean egongo diren hezkuntza-plataforman edota Google Cloud-en ingurunean.

Deustuko Ikastolaren ardurapean, *Google Apps for Education* jardunerako oinarrizko aplikazio multzoa da (biltegitratzea, komunikazioa, egutegia, webguneak, testu-prozesadorea, aurkezpenak, marrazkiak, kalkulu-orriak, formularioak eta abar), eta linean hainbat eduki mota sortzeko, beste pertsona batzuekin lankidetzan aritzeko eta fitxategiak hodeian gordetzeko aukera ematen du.




ELKARBIZITZA ARAUAK: OINARRIZKO ERABILERA ARDURATSUA

- Ikasleei emango zaien ekipamendua egunero-egunero autonomiaz erabiltzeko aurreikusia dago. Irakasleak gidatutako erabilerarako ez ezik, bitzta eskolarrean, alegia: eskola-mezuak, iragarkiak, egutegiak, ordutegiak... bezalakoak kudeatzeko ere erabili ahalko da, noski.
- Gailuak bateria guztiz kargatuta dutela iritsi behar dira egunero ikastolara. Hortaz, ikasleek gauero kargatzeaz arduratu beharko dute. Gailua eskolara ez ekartzea edo egoera egokian ez ekartzea (bateria kargatu gabe eta abar) koadernoak ahaztea bezalako hutsegitea izango da. Hutsegite hori errepikatzeak, ardura-faltagatik, arautegi urraketa bezala kudeatzea eragingo du.
- Plagioa elkarbitzita-arau urraketa esanguratsua da. Edukien eraldaketan, berriz, informazio-iturriak aipatu behar dira (edozein euskarritan erabilitako grafikoak, filmak, musika, testua eta abar).
- Oro har, ordenagailua eskola zeregin guztietara eramateaz arduratu beharko du ikasle bakoitzak (irakasleak aurkakoa adierazten duenean izan ezik), eta norbere mahaiari gorde beharko du erabiltzen ari ez denean.
- Ikasleek ikasketa eta ikerketa bultzatzeko eta ikastolaren hezkuntza-helburuak lortzeko baliabide elektronikoen eta informazio-gune guztietarako sarbidea izango dute. Nolanahi ere, ikastolak eskura jartzen dizkien baliabide teknologikoen erabilera etikoaren eta hezkuntza-erabileraren erantzuleak dira.
- Eskolako baliabide teknologikoak erabiltzeko aukera ez da oinarrizko eskubidea, ustiapen kontzesioa baizik. Ezinbestekoa da ikasle bakoitzak eta aitak/amak edo tutoreak erabilera onargarriaren politika hau onartzea.
- Debekatuta dago edozein lege urratzen duen material mota oro transmititzea. Material horien artean, honako hauek daude:
 - Informazio konfidentziala, copyrighta duen materiala, material lizuna edo mehatxuzkoa, edota birusak.
 - Chromebook baten datuak edo konfigurazioa edota beste erabiltzaile baten, ikastolaren, zuzendaritzaren, irakasle taldearen edo teknologia-administratzaileen artxiboak baimenik gabe aldatzeko ahalegin oro eraso-ekintzat hartuko da eta elkarbitzita-arautegiari lotuta egongo da.
- Markei, egile-eskubideei eta lizentzia-erabakiei buruzko legeak daude. Legearen berri ez izateak ez du betetzeaz salbuesten, eta, zalantzarik izanez gero, garrantzitsua da irakasleengana jotzea.
- Pribatutasuna eta segurtasuna:

Oso garrantzitsua izango da honelako jarraibide hauei jaramon egitea:

 - Ikasleek @deustukoikastola.net domeinuaren barruan baino ezin izango dute saioa hasi ikastolan.
 - Oso garrantzitsua da pasahitza babestea eta inoiz inori ez jakinaraztea.
 - Ez erabili sare sozial, txat edo komunikazio elektronikoetan baimenik gabe.
 - Ez zabaldu, erabili edo aldatu zeronena ez den fitxategirik.
 - Testuinguru erabat ziurraren faltan, ez partekatu zure datu pertsonalak edota



pasahitzak inorekin, ezta beste pertsona batzuenak ere.

Oharkabean ala borondatez, eduki desegoki edo iraingarria duten webgune batean sartzera iritsiz gero, irten berehala.

deustukoikastola.net sare-domeinua ikastolarena da, eta, beraz, ikastolako araei eta indarrean dagoen legeriari lotuta dago.

- **Komunikazioak**

Kontuan hartu honako argibide hauek zure komunikazio telematikoetan, baita bestelakoetan ere:

- Komunikazioak eskola-testuinguruan kokatuta egon behar du.
 - Hizkuntz-erregistro egokia eta txukuna erabili beti.
 - Ez partekatu lizuntzat, neurriz gainekotzat edo iraingarritzat har daitezkeen eduki edo materialik.
 - Ez bidali baimenik gabeko e-posta masiborik, e-postak katean edota spam-nik.
 - Ikastolaren lan-domeinuaren barruan landutako komunikazio oro ikastolaren araei eta indarrean dagoen legeriari lotuta egongo da.
- Ordenagailuak isilduta egon beharko du beti, hezkuntza-helburuak direla-eta irakasleak aurkakoa adierazten ez duen artean. Irakasleak bidezkotzat ikusten badu, belarrietarako entzungailuak erabili ahal izango dira.

FUNTZIONAMENDU BALDINTZAK ETA ARAZOEK EBAZPENAK

Ordenagailuaren oinarrizko erantzukizuna

Ikaslea da ikastolak jabetzan ematen dion ordenagailuaren zaintza orokorraren erantzulea. Hautsita dauden edo behar bezala funtzionatzen ez dutenean gurasoek Xenon enpresako mantendu zerbitzuari deituko diote lehen bait lehen konpon dezaten, bitartean ikastolak ikasleari botikineko beste ekipo bat emango dio. Gailua ikaslearena da, beraz, ordenagailua hondatuz, galduz edo lapurtuz gero, ikasleak gailu berri bat erosi beharko du.

Gailuaren bateria kargatzea


Gailua beharrezkoa izango da etxean egin beharreko lanerako. Hortaz, gailua egunero behar bezala garraiatzeaz arduratu beharko du ikasle bakoitzak. Era berean, hurrengo goizean bateria erabat bete egongo dela ziurtatuko du.

Gailuak bateria guztiz kargatuta dutela iritsi behar dira egunero ikastolara. Ordenagailuaren oinarrizko mantenu teknikoa

Ordenagailuak laguntza teknikoa behar badu, Xenon Computer hornitzailera jo behar da zuzenean (tel.: 943444444)

Konpontzen ari den gailua edo etxean ahaztuta utzitako gailua

Gailua konpontzen ari denean jabetza produktuan aurreikusi bezala, ikasleei ekipo bat utziko zaie botikinekoa maileguan tutorearen bitartez.



Maileguko ordenagailua erabiltzen duten ikasleak izango dira eragindako kalteen eta horien kostuaren erantzuleak gailua lagata duten bitartean.

Inprimaketa

Beharraren arabera, irakasleen bitartez partekatuko diren inprimatzeko prozedura desberdinak ahalbideratuko dira ikastolan.

Chromebooka eta dagokion Sistema Eragilea

Chromebooka abiarazten denean, automatikoki eguneratzen da. Hortaz, Chrome sistema operatiboaren bertsiorik berriena du aldiko, ezer egin behar izan gabe. Ez da instalazio edo eguneratzerik kudeatu behar aldizka.

Babes sakonen teknologiarri jarraiki, malwareen erasoen eta segurtasun-arriskuen aurkako babes-geruzekin osatuta dago Chromebooka. Ez du birusen aurkako software gehigarririk behar.

Fitxategiak hodeian biltegitratzen dira, eta, beraz, ez dago galdutako lanaz kezkatu beharrik.

CHROMEBOOKAREN BABESA ETA ZAINTZA

Zaintza orokorrak

- Ez erabili gailua elikagai edo edarien ondoan.
- Biltegitratzeko kable eta gailu aldagarriak kontu handiz sartu behar dira gailuan.
- Gailuek ez dute inolako testurik, marrazkirik edo pegatinarik izan behar.
- Aireztapen-sareak ez dira estali behar.
- Gailuak ezin dira zaintzarik gabeko eremuetan utzi.
- Ikaslea gailua erabiltzen ari ez denean, motxilan edota bere mahaian gordeko du.


Gailuen garraioa

- Garrantzitsua da gailua beharrezkoa den arretarekin garraiatzea.
- Gailuaren estalkiek itxita egon behar dute gailua garraiatzen den guztietan.
- Gailua inoiz ez da garraiatu edo mugitu behar pantailatik hartuta. Beti behealdetik helduta altxa edo mugitu behar da, estalkia itxita dagoela.
- Oso komenigarria da gailua garraiatzeko zorro edo poltsa egoki batean eramatea.
- Gailua inoiz ez da garraiatu behar eta inoiz ez da garraiatzeko zorroan edo motxilan gorde behar elikatze-kablea konektatuta dagoenean.

Bereziki, pantailaren babesa

Gailuaren pantaila erraz honda daitekeen alderdia da. Bereziki sentikorra da gehiegizko presioak eragiten dion kaltearen aurrean. Hortaz, oso garrantzitsua da honako argibide hauei jarraitzea:

- Ez jarri eta ez egin presiorik taparen gainean itxita dagoenean eta ez gorde ordenagailua pantaila irekita dagoenean.
- Ez ukitu pantaila gainazala markatu edo marra dezakeen ezerekin, eta garbitu pantaila oihal leun eta lehor batekin (ahal bada, mikrozuuntzekoa eta antiestatikoa izango dena) eta kontu handia izan garbiketa-disolbatzaileekin



- Ez ipini ezer teklatuaren gainean estalkia itxi aurretik (hala nola arkatzak edo diskoak...).

Ikuskatu gabeko eremuetan ahaztuta utzitako gailuak

Ezein kasutan ez da utzi behar gailu bat ikuskatu gabeko eremu batean. Ikuskatu gabeko gailu bat aurkituz gero, irakasle bati edo ikastetxeko arduradunen bati jakinarazi beharko zaio lehenbailehen.

HORNITZAILEAREN BERMEAK

Fabrikatzailearen bermea Chromebookerako

Gailu hornitzaileak urtebetez bermatuko du gailuaren hardwarea:

- Berme mugatu horren estaldurak erabilera normala, matxura mekanikoak, fabrikazio-akatsak eta konpontzeko beharrezkoak diren ordezeko piezak hartzen ditu eraginpean.
- Hornitzailearen bermeak ez ditu eraginpean hartzen okerreko erabilerak, neurritz gaineko erabilerak, istripuek edo birusek eragindako kalteak.

Xenon enpresak emandako Acer Advantage programaren ezaugarriak

Honako hauek hartzen ditu eraginpean ikastolak 2017/2018 ikasturtearen hasieran emango dituen gailuei aplikatu beharreko berme-luzapenak:

Garantiak: **Servicio Post-Venta: PROGRAMA ACER GARANTIAS EXTENDIDAS(4 AÑOS).Cubre golpes, y roturas pantalla(franquicia)(ver archivo adjunto condiciones).**


En caso de avería la familia, o el centro ,puede comunicar la incidencia a través de una web específica, creada al efecto. Pasaremos a recoger el dispositivo al domicilio o el Centro, lo reparamos y lo devolvemos en el mínimo plazo posible, sin coste alguno(previamente se comunicará plazo de resolución).

La extensión de garantía que planteamos INCLUYE Beneficios del programa Acer Advantage

1. Servicio de reparaciones prioritarias para su Producto Acer.
2. Posibilidad de acceso a nuestro soporte técnico telefónico, por fax y en línea durante todo el periodo de validez de su Programa sin más gastos que no sean los costes de la llamada telefónica.
3. 3/4 años Carry-In (Transporte): Este servicio proporciona asistencia de alta calidad en los Centros de Reparación Acer e incluye el transporte gratuito hacia/de nuestros laboratorios.
4. 3/4 años International Travellers Warranty: Protección internacional para su portátil/netbook/tablet.
5. 3/4 años Cobertura Frente a Daños Accidentales*. * Daños accidentales: es el daño producido al Producto por un acontecimiento imprevisible, repentino, involuntario y fortuito provocado por o debido a causas externas, que perjudique/impida el funcionamiento normal del bien asegurado, o sea peligroso su uso.

En el supuesto de que el daño accidental afecte a la pantalla de cristal líquido de su Producto, correrá de cuenta una franquicia por importe de 30,00 Euros a la primera y/o segunda rotura por cada año. A partir de la segunda rotura en un mismo año, en caso de posteriores roturas de la pantalla de cristal líquido correrá de cuenta una franquicia por importe de 60,00 Euros.

Nuestro agente o reparador podrá retener el Producto hasta que Vd. efectúe el pago de la franquicia.
Education Partner Solution Centre SERVICIO TÉCNICO OFICIAL



SALBUESPENAK. Polizaren estaldurak ez ditu honako hauek kontuan hartzen:

1. Gailu periferikoetan eragindako ustekabeko kalteak, hala nola honako hauetan eragindakoak: joko-gailuak, joko-diskoak, bigarren monitoreak, erakusle optikoak eta/edo kanpoko teklatuak, karkasak eta osagarri edo kontsumigarri gisa sailkatutako zatiak, honako hauek barnean hartuta (baina horietara mugatu gabe): lanparak, proiektoreen lanparak, inprimagailuak, inprimagailuko kartutxoak, inprimatzeko papera edo argazki-papera, memoria-disketeak, memoria-gailuak, poltsak, arkatzak, bozgorailuak eta produktuaren barnekoa ez den beste edozein zati edo osagai.

2. Bateria. Bateria eskuratutako produktuaren edo bateriaren beraren berme-baldintzei lotuta dago.


3. Aurrez instalatutako, ekipoarekin erositako edo ekipoan instalatutako programetan eragiten den ezein akats edo kalte (birusen infekzioen kalteak barne, mugarik gabe); nolana ere, Fabrikako Neurrirako Integrazio gisa sartutako osagarriak edo osagaiak barnean hartuko dira, mugarik gabe. Poliza honen estaldurak ez du kontuan hartzen periferikoekin banatutako ezein programa.

4. Kalte estetikoak, akatsak edota produktuaren funtzionamenduan eraginik ez duten kalte edo ondorioak; adibidez, eta besteak salbuetsi gabe, produktuaren erabilera-ahalmena funtsean kaltetzen ez duten hazka-markak eta mailatuak aipa daitezke.

5. Erabilpena edota higaduragatik sortutako edozein kalte

6. Hornitzailearen agentea, teknikaria edo langilea ez den pertsona batek konpondu duen produktu oro. Bere langileetako bat edo berak izendatu edo onartutako pertsonaren bat ez den batek egindako konponketa edo konponketa-ahalegin orok akordio hau bertan behera geratzea eragingo du. Produktuan erabiltzaileak edo besteren batek egiten dituen konponketengatik (edo ahaleginengatik) ez da ordainduko, ez eta:

- Produktoa galtzea
- Produktuaren lapurreta
- Kanpoko edo barruko iturri batetik sortutako suak edo suteak eragindako kalteak.
- Berariazko agente edo teknikariak edo Acer-ek baimendutako edozein pertsonak nahita egindakoak.



ERANSKINA

Erabilera-irizpideen onarpena

Nik, (izena eta abizenak),

Padre/madre

..... ikaslearen aitak – amak

Alumno/a

– legezko tutoreak, agiri honen bidez ziurtatzen dut ulertu ditugula “**STL CHROMEBOOK ARAUTEGIA. Norbere Jabetzan Emandako Ordenagailuaren Erabilera**” izeneko dokumentuan deskribatutako puntu guztiak, eta onartzen ditugula, dokumentu hau sinatzearen bidez, bertan deskribatuta dauden baldintza guztiak.

.....confirmamos haber recibido y asumido el documento indicado.....

Bilbao, 201.....ekoaren(a)

Iz.

Ikasle erabiltzailea

Alumno/a

Iz.

Guraso (tutore legal) arduraduna

Progenitor (tutor)